

MOZORRO LEHIAKETAren OINARRIAK

- 1.- Lehiaketan sartzeko otsailaren 10ean, larunbata, eguerdiko 13:00ean egingo den desfilean parte hartu beharko dute.
- 2.- Desfilean parte hartzeko Luis Ezeizako patioan eman behar da izena 12:30etatik 12:45era edo alde zuzenetik kultur etxean (943 71 46 88 edota kultura@eskoriatza.eus).
- 3.- Desfileko parte hartzaileak Luis Ezeiza eskolako patioan egon beharko dira eguerdiko 12:50ean.
- 4.- Parte hartzaile edo koadrila bakoitzari zenbaki bat emango zaio, desfilerako ordena adierazteko.
5. Desfilea 13:00ean hasiko da. Ibilbidea: Luis Ezeiza / plaza / Sanjuankale /Plaza.
- 6.- Erakustaldia edo dantzaldia egingo duten taldeek plaza parean gelditu ahalko dira. Saiatu 4 edo 5 minutu baino gehiago ez egoten.
- 8.- Epaimahaia desfilea bukatutakoan elkartuko da erabakia hartzeko eta arratsaldean, 19:00ak aldera, plazan bertan jakinaraziko da irabazleak nortzuk diren eta sariak ere banatuko dira orduan.
- 9.- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta saririk ez ematea ere erabaki ahal izango du.
- 10.-Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Sortu litezkeen zalantzei edo ezustekoei erantzutea antolatzaileen esku egongo da.

Sariak

14 urtetik gorakoentzako

a. Banaka edo bikoteka

50 euroko hiru sari mozorro onenei

b.- Talde txikiak (3 - 7)

100 euroko hiru sari talde onenei

c. - Talde handiak (+8)

200 euroko hiru sari talde onenei

14 urtetik beherakoentzako

2 pertsonako gorako taldeak.

3 sari guztira: ogitartekoa eta edaria (guztira gehienez ere 100 €).